



ALEGIAKO ORRIE

ALEGIAKO ORRIE - 2018ko abendua // Argitaratzailea: Alegiako Udala

Erredakzioa eta diseinua: Goiua // Inprimaketa: Garaiko

EUSKARALDIA

LEHEN ESPERIENTZIA ARRAKASTATSUA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ospatu zen Euskaraldia. Euskal Herri mailan lehen aldiz egin da antzeko ekimen bat eta helburua euskararen erabilera ahalik eta gehien hedatzea izan da, horretarako eskura jarri diren baliabide ezberdinak erabiliz.

Hilabeteetako kontzientziazio kanpaina bat egin dute Euskaraldiaren antolatzaileek herritarrei egitasmoaren nondik norakoak modu xehean azaltzeko. Eus-

karaldian parte hartu duten herritarrek bi rol izan dituzte aukeran.

Alde batetik, Ahobizi izateko aukera izan dute. Rol hori aukeratu zutenek, lehen hitza beti euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten.

Horrela, solaskideak euskaraz ez zekien kasuetan ere hizketaldia euskaraz hasten zen eta hamaika eguneko esperientziaren ostean, ustez euskaraz ez zekiten hiztun dezente topatu dituztela adierazi dute

Euskaraldiaren antolatzaileek.

Bigarren rola Belarriprest deiturikoa izan da. Kasu honetan, Belarriprest txapa zutenek euskaraz ulertzen dutela adierazi nahi zuten, nahiz eta solaskideari euskaraz egiteko gai ez izan.

Pertsona horiekin euskaraz komunikatzea posible zela erakutsi nahi izan da eta lotsa galduta euskaraz modu soltean aritzeko modurik ez duten hainbat pertsona ere ikusi dira

hizketaldiei euskaraz eusten. Kasu honetan ere izan dira ezusteko atseginak, ustez euskara ulertzen ez zuen jendeak gure hizkuntza modu oso duinean ulertzen duela ohartzean.

AZKEN EKITALDIA

Euskaraldiko azken eguna abenduaren 3a izan zen eta egun horretan Euskararen Eguna ere ospatzen da, besteren artean. Bada, egun seinalatu hori ospatze aldera, Euskaraldiko antolatzaileek amaiera eki-

talditxo bat antolatu zuten. Alegian Euskaraldiarekin bat egin duten herritar ugari familia argazki bat atera zuten plazan eta ondoren, Eizmendi tabernan luntx bat egin zen hamaika eguneko ekimenari zegokion moduko amaiera emateko.

Gauzak horrela, Euskaraldiko jarrera egunerokotasunera eramatea izango da hurrengo erronka, euskararen osasunak hobera egin dezan eta erabilerak gora.



KULTURA

GABONETAKO KULTUR EGITARAUA

Alegiako Kultura batzordeak prest du gabonetako kultur egitaraua. Abenduaren 16tik urtarrilaren 5era bitartean herritar guztiei egokitutako ekintza ugari antolatu dira eta egitarau horretan urteetan presente egon diren ekitaldiez gain, berrikuntzaren bat ere sartu dute antolatzaileek.

Ekintza batzuk antolatu ahal izateko aurrez eman beharko da izena.

Hurrengo orrialdean modu zabalagoan azaldu duzuen Zirku Tailerrean parte hartu nahi dutenek abenduaren 20ra bitarteko epea izango dute izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko eta kultur etxera jo beharko dute. San Silbestre lasterketari dagokionean, abenduaren 18a izango da aurrez izena emateko azken eguna. 16 urtetik gorakoek 6 euro ordain-

du beharko dituzte eta kamiseta bana jasoko dute.

Batzordetik herritarren laguntza eskatu nahi da hainbat ekitaldiren antolaketan esku bat botatzeko. Horrela, San Silbestre lasterketan, esate baterako, ibilbidean zehar egon daitezkeen bidegurutzeak zaintzeko edo beste hainbat zereginetarako bolondresen beharra izaten da. Norbait esku



bat botatzeko prest egongo balitz, batzordeko kideren batekin harremanetan jartzea edo kultur etxera joatea besterik ez luke izango.

Orduan eta laguntzaile gehiago izan, ekitaldiek emaitza hobea izango dute.

Azpian duzue egitaraua aletuta.

EGITARAUA

ABENDUAK 16, IGANDEA

18:00. Gaztain jatea plazan.

ABENDUAK 19, ASTEAZKENA

18:30. Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua. Elizpe zinean.

ABENDUAK 23, IGANDEA

18:00. Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen gabonetako kontzertua. Elizan.

ABENDUAK 24, ASTELEHENA

11:00. San Juan eskolako ikasleak kaleetan kantari.
16:30. Txintxarri abesbatza kaleetan kantari Larraitz auzotik abiatuta.
18:30. Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera. Eskola aurrean egingo zaie harrera.

ABENDUAK 25, ASTEARTEA

11:15. Txintxarri abesbatzak meza nagusian abestuko du.

ABENDUAK 26, 27 ETA 28

Zirku Tailerra 6 eta 18 urte bitarteko gaztetxoentzat. Adunako Asvinenea zentroan. Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko aukera kultur etxean abenduaren 20ra bitartean.

ABENDUAK 26 ETA 27

Gabonetako Pilota Topaketa. Saikapen partidak.

ABENDUAK 29, LARUNBATA

16:00. Gabonetako Pilota Topaketako finalak Elorri pilotalekuan.

ABENDUAK 31, ASTELEHENA

16:00. IX. San Silbestre krosa. Maila ezberdinetako lasterketak.
19:00. "Euskal preso eta iheslari eta senideen eskubideen alde" lelopean manifestazioa plazatik abiatuta.

URTARRILAK 1, ASTEARTEA

11:15. Txintxarri abesbatzak meza nagusian abestuko du.
12:15. Udal hautetsiek intxaurrak eta mandarinak banatuko dituzte plazan.

URTARRILAK 2 ETA 3

Multikirola kanpua. Goizetan. Iturri Zahar guraso elkarteak antolatuta.

URTARRILAK 5, LARUNBATA

18:30. Errege kabalgata Orendaingo bidetik.

Gainerako herritarrekiko begiruneagatik besterik ez bada ere, herrigunean **TXAKURRAK LOTUTA** eramatea **DERRIGO-RREZKOA** dela gogorazten zaie txakurren jabeei.

Txakurren **kakak txakurren jabeek beraiek jaso behar dituzte**, eta **errefusa** jasotzen den edukiontzira bota.

Txakur arriskutsuei **bozala** jarri behar zaie. Elkarbizitzaren alde hartu beharreko neurriak dira.

La versión en castellano de Alegiako Orrie está **disponible en el Ayuntamiento** para todos aquellos ciudadanos que deseen consultarla. Los vecinos que quieran **recibir en su domicilio la versión en**

castellano de Alegiako Orrie, tendrán la opción de **solicitarla en el Ayuntamiento** facilitando los siguientes datos: nombre, apellidos y dirección. El Ayuntamiento se encargará de mandar la revista a los domicilios.

ZIRKU TAILERRA 6 ETA 18 URTE BITARTEKOENTZAT

Aurreko orrialdean kontsultatu daitekeen gabonetako kultur egitarauan bada berrikuntza nagusi bat. Abenduaren 26an, 27an eta 28an eskainiko den zirku tailerra da berrikuntza hori eta Udaleko Gazteria sailak antolatu du. 6 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago eta tailerraren inguruko informazio gehiago nahi duenak edo bertan izena eman nahi duenak kultur etxean izango du horretarako aukera abendua-

ren 20ra, osteguna, bitartean.

Zirku tailer hori Adu-nako Asvinenea arte eszenikoen zentroan egingo da. Urteak dar-matzate zentro horretan arte eszenikoen inguruan lanean eta jarduera eskaintza zabal baten barnean aurkitzen da zirku tailerra.

Haurrei eta gaztetxoei egungo zirku ereduak biltzen dituen diziplina ezberdinak ezagutzeko eta probatzeko aukera ematen zaie eta baita zirkuak bultzatzen



dituen baloreak barne-ratzekoa ere.

Izan ere, zirkuari psikologiak garrantzia berezia du. Norberaren gorputza ezagutzeko ahalbidetzen du eta horretaz

gain, etengabeko erronkak planteatzen ditu, helburu bat lortu bezain laster, hurrengo lortzeko lanean hasteko gogoia izaten baita.

Gauzak horrela,

gabonetako oporrak baliatuz mundu berri bat ezagutzeko aukera izango da. Nork daki, agian zirkuako artista handiren baten lehen urratsak izango dira.

HEZKUNTZA

HAURRESKOLAKO KUOTEN ALDAKETA

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera Haurreskolak Partzuergoko haurreskolek hainbat aldaketa izango dituzte. Nagusiki kuota sisteman izango dute eragina aldaketa horiek baina izen emateak barematzeko orduan ere izango dira aldaketak. Arautegiaren arabera, ondokoak izango dira punturik garrantzitsuenak.

Urtarrilaren 1etik aurrera kuota tarte berri

bat zabalduko da, 0 kuota tarte. Kuota tarte hori, oinarri zergagarri orokorraren eta aurrezpenaren zerga oinarria batuta, 18000 euro baino gutxiagoko irabaziak dituzten familiei aplikatuko zaie.

Kuota tarte esleitzeko orduan, 2018-2019 ikasturtean 2016ko errenta aitortzen izango dira kontuan eta gaitzetzeko kuota tarteak kalkulatzeko moduak

berdin jarraituko du. Horietan errenta estandarizatuaren sistema aplikatuko da, orain arte bezala.

Dagoeneko haurreskola batean dauden eta aurrez aipaturiko 18000 euroko familia errentetara iristen ez diren familientzat urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da 0 kuota, otsailaren hasieran kobratuko den kuotan. Kuota kalkulatzeko haurreskolek

dituzten errenten datuetan oinarrituko dira eta beraz, ez da dokumentazio berririk aurkeztu behar.

Erditze anitzeko kasuetan edo haurreskolan anai-arreba bat edo gehiago dituzten kasuetan, bigarren eta hurrengo anai-arrebek doako kuota izango dute. 91 euroko aurrezki kuota desagertuko da eta horrenbestean, urtarriletik aurrera aur-

kezten diren izen ematek ez dute transferentzia horren ziurtagiririk aurkeztu behar.

Azkenik, baremoari dagokionez, lan egoerak baloratzeko garaian, aita, ama edo legezko tutoreen kasuan biak lanean aritzea edo guraso bakarrek familia bada, guraso bakar lanean aritzea lau punturekin sarituko da eta ez bi punturekin, orain arte bezala.

HAINBAT OHAR

■ Abenduaren 31n, Tolosa-Abaltzisketa autobus lineako arratsaldeko hainbat autobusek Alegi Pentsuakaren parean izango dute herriko geraleku bakarra, San Silbestre krosa dela eta.

■ Urtarrilaren 5ean, Tolosa-Abaltzisketa autobus lineako arratsaldeko hainbat autobusek Alegi Pentsuakaren parean izango dute herriko geraleku bakarra, errege kabalgata dela eta.

■ Abenduaren 24ean, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean Udal bulegoak itxita egongo dira.

■ Liburutegia abenduaren 21etik urtarrilaren 2ra egongo da itxita, biak barne, eta kultur etxea abenduaren 24tik urtarrilaren 2ra, biak barne.

HIRIGINTZA


BEISTINDIK HILERRIRAKO BIDEA

Beistin auzotik hilerrira joateko oinezkoen bidea egin da 2018an. Altzoko errepidea erabili beharrik gabe, herritarrek ibilgailurik ibiliko ez den bide batetik egin dezakete orain Alegiatik hilerrirako bidea. Bada, 2019an bide hori asfal-

tatzeko lanak gauzatuko dira, horretarako aurrez egin beharreko egokitzapenak eginda. Modu horretan erabiltzaileek are eta bide erosoagoa izango dute eskura eta etorkizunean, bide horrek jarraipena izango du Altzoraino.



GAZTELEKUKO ETA ZINEKO BEROKUNTZA




Gaztelekuan eta Elizpe zinean berokuntza sistema eraberritzeko lanak gauzatu dira azken hilabeteetan. Gaztelekuan aerotermostoko berokuntza sistema ezarri da. Aldiz, Elizpe zinean, berokuntza sistema aerotermostako beharrezkoa den ur beroaren hornidura galdara baten bidez bermatu da. Aldi berean, elizatik zetozen ur beroen tutuak moztu dira eta modu horretan zineko berokuntza sistema independentea izango da aurrerantzean.

etarako beharrezkoa den ur beroaren hornidura galdara baten bidez bermatu da. Aldi berean, elizatik zetozen ur beroen tutuak moztu dira eta modu horretan zineko berokuntza sistema independentea izango da aurrerantzean.

ELORRI PILOTALEKUKO KANPOKO SARRERAK

Elorri pilotalekuak futbol zelai aldetik duen sarreran ate berriak jarrik dira, azken hilabeteetan pilotalekura eta Gaztelekuko eremura jendea sartu delako eta hainbat kalte eragin direlako. Ate berri horiek sarraile elektro-

nikoarekin ezarriko dira eta ordutegi jakin batean egongo dira zabalik. Gauzez itxita egongo dira ate horiek segurtasunagatik. Udalak antzeko neurri gehiagorik hartu beharrik ez izatea espero du eta antzeko ekin-tzak ez errepikatzea.



KULTUR ETXEKO ETA PILOTALEKUKO ARGITERIA



2019an gauzatuko den beste egitasmoetako bat kultur etxeako eta Elorri pilotalekuko argiteria eraberritzea izango da. Orain arteko argiteria aldatu eta LED teknologiako lanparak ezarriko dira aipatu bi lekuetan. Horrela, Alegiako Uda-

lak herriko eremu ezberdinetan eraginkortasun energetikoa helburu hartua garatu dituen eraberritzeetan beste pauso bat emango du. Besteren artean, herriko argiteria publiko LED lanparekin hornituta dago.